INTERREG ATLANTIC AREA EAPA_0035/2022 – BluePoint PROIEKTUAREN GASTUAK BALIOZKOTZEKO KONTROLATZAILE (AUDITORE) BAT KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA (2025 eta 2026)

1. AURREKARIAK

EAPA_0035/2022 – BluePoint proiektua Interreg Atlantic Area 2021-2027 programaren baitan onartu da.

Interreg Atlantic Area 2021-2027 programak nazioz gaindiko lankidetza babesten du lau herrialdeetako eskualde atlantikoetan: Portugal, Espainia, Frantzia eta Irlanda. Programa berriaren baitan, eskualde atlantikoen hazkundean lagunduko duten ekimen berritzaileak babesten dira, mugaz gaindiko erronka komunak konponduz, ekintza bateratuak gauzatuz, jardunbide egokiak trukatuz eta politika berriei edo gaur egungoei ekarpena eginez. Programaren aurrekontua Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) dator. BluePoint proiektuaren ko-finantzaketa aurrekontu hautagarri osoaren %75 da,

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 13 entitatez osatutako partzuergo baten buru izanik (12 entitate bazkide + bazkide elkartu 1, 2023ko martxoaren 12an aurkeztu zuen BluePoint proiektuaren proposamena Interreg Atlantic Area 2021-2027 deialdira. Proiektuak ebaluazio-prozesua gainditu zuen, eta 2024ko otsailaren 1ean dirulaguntzaren kontratua formalizatu zen.

BluePoint proiektuaren helburua da interkooperazioa, berrikuntza, ekintzailetza eta nazioartekotzeko interesa duten interes-talde ugariz osatutako ekosistema bat sortzea, itsas plastikoaren balio-katea eta sortzen ari diren merkataritza-aukerak aprobetxatzeko, Atlantikoko eskualdean ekonomia zirkularreko modelo erreplikagarria sortzeko. Horrek itsas plastikoaren ingurumen-inpaktua murriztuko du, negozio aukera berriak sortuko ditu (25 enpresa baino gehiagoren azelerazioa barne) eta itsas sektorea ekonomia zirkular urdin baterantz eramango du.

Proiektuaren epe hautagarria hau da:

- Proiektuaren hasiera-data: 2023/11/1
- Proiektuaren amaiera-data: 2026/06/30

Proiektuaren onartutako inprimakiaren arabera (*Project Approved Form, PAF*) GFAren aurrekontua guztira proiektuaren baitan 319.275,00 €-koa da (proiektuaren aurrekontu osoaren % 9,49), Interreg

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE UN CONTROLADOR (AUDITOR/A) PARA LA VALIDACIÓN DE LOS GASTOS DEL PROYECTO INTERREG ATLANTIC AREA EAPA_0035/2022 – BluePoint (2025 y 2026)

1. ANTECEDENTES

El proyecto EAPA_0035/2022-BluePoint ha sido aprobado en el marco del programa 2021-2027 Interreg Atlantic Area.

Interreg Atlantic Area 2021-2027 apoya la cooperación transnacional en las regiones atlánticas de cuatro países: Portugal, España, Francia e Irlanda. En el marco del nuevo programa se apoyan iniciativas innovadoras que contribuyan al crecimiento de las regiones atlánticas, resolviendo retos comunes transfronterizos mediante la implementación de acciones conjuntas, el intercambio de buenas prácticas y la contribución a nuevas o actuales políticas. El presupuesto del programa procede del Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER). La co-financiación del proyecto BluePoint es del 75% del presupuesto total elegible.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, liderando un consorcio de 13 entidades (12 entidades socias + 1 socio asociado), presentó en marzo de 2023 la propuesta del proyecto BluePoint a la convocatoria del programa 2021-2027 Interreg Atlantic Area. El proyecto superó el proceso de evaluación y el 1 de febrero de 2024 se formalizó el contrato de subvención.

El proyecto BluePoint tiene como objetivo crear un ecosistema de múltiples partes interesadas de intercooperación, innovación, emprendimiento e internacionalización que aproveche la cadena de valor del plástico marino y las oportunidades comerciales emergentes para establecer un modelo de economía circular replicable en la región del Atlántico. Esto reducirá el impacto ambiental del plástico marino, creará nuevas oportunidades de negocio (incluida la aceleración de +25 empresas) y conducirá al sector marítimo hacia una Economía Circular Azul.

El periodo elegible del proyecto es:

- Fecha de inicio del proyecto: 1/11/2023
- Fecha fin proyecto: 30/06/2026

De acuerdo al formulario aprobado del proyecto (*Project Approved Form, PAF*) el presupuesto total de la DFG en el marco del proyecto es de 319.275,00 € (un 9,49% del presupuesto total del

Atlantic Area 2021-2027 programaren (EGEF) %75eko ko-finantzaketarekin, hau da, 239.793,75 €.

BluePoint proiektuaren esparruan, GFAren kostuak kalkulatzeko metodoa honakoa da: langileen eta bidaien kostu errealak, bulego eta administrazio kostu sinplifikatuak.

GFAren aurrekontuaren banapena, kostu-motaren arabera, honakoa da:

Langileen kostuak: 56,719.99 €
Bulego eta administrazio kostuak: 8.508,00 €
Bidaiak eta ostatuak: 17,017.01 €
Kanpoko laguntzaren eta zerbitzuen kostuak: 220,000.00 €

Informazio gehiago:

- Proiektuari buruz: https://www.bluepointproject.eu/
- Interreg Atlantic Area programari buruz: https://www.atlanticarea.eu/

2021-2027 programazio-aldian kudeaketak egiaztatzeko arau-esparruaren helburua da programen aplikazioaren eraginkortasunaren eta lotutako kostu eta karga administratiboen arteko balantze egokia bermatzea.

2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74. Artikulua jarraituz, “kudeaketaren egiaztapenak arriskuen arabera egingo dira, eta ex ante eta idatziz detektatutako arriskuei dagokienez proportzionatuak izango dira”.

Arriskuetan oinarritutako kudeaketa egiaztatzeko metodologia eta prozedurak Interreg Atlantic arearen kudeaketa- eta kontrol-sistemaren deskribapenaren parte dira. Kontrolatzaileek kontuan hartu beharko duten erreferentziazko dokumentua “*Methodology for risk-based management verifications 2021-2027”* agiri honekin batera doan dokumentua da.

2. XEDEA

Preskripzio Teknikoen Agiri honen helburu nagusia da kontrolatzaile (auditore) bat kontratatzea 2025 eta 2026rako, EAPA_0035/2022 – BluePoint proiektuaren gastuak baliozkotzeko. Proiektua Interreg Atlantic Area 2021-2027 programaren esparruan onartu zen, eta Gipuzkoako Foru Aldundia bazkide liderra eta erakunde onuraduna da.

proyecto), con una co-financiación del 75% procedentes del programa Interreg Atlantic Area 2021-2027 (FEDER), esto es, 239.793,75 €.

El método de cálculo de costes para la DFG en el marco del proyecto BluePoint es: Costes reales personal y viajes, costes simplificados oficina y administración.

El desglose del presupuesto de la DFG por tipo de costes, es el siguiente:

Costes de personal: 56,719.99 €
Costes de oficina y administración: 8.508,00 €
Viajes y alojamientos: 17,017.01 €
Costes de asistencia externa y servicios: 220,000.00 €

Más información:

Sobre el proyecto: https://www.bluepointproject.eu/
Sobre el programa Interreg Atlantic Area: https://www.atlanticarea.eu/

El marco regulatorio para la verificación de gestiones en el periodo de programación 2021-2027 tiene por objeto garantizar un balance adecuado entre la eficiencia en la aplicación de programas, y los costes y cargas administrativas asociadas.

Siguiendo el artículo 74 del Reglamento (UE) 2021/1060, “las verificaciones de gestión se efectuarán en función de los riesgos y serán proporcionadas en relación con los riesgos detectados ex ante y por escrito”.

La metodología y los procedimientos para las verificaciones de la gestión basada en riesgos forman parte de la descripción del sistema de gestión y control de Interreg Atlantic Area. El documento de referencia en este ámbito, que los controladores deberán tener en consideración, es el documento que se adjunta con los Pliegos “*Methodology for risk-based management verifications in 2021-2027*”.

2. OBJETO

El presente pliego tiene por objeto la contratación para los años 2025 y 2026 de un controlador (auditor/a) para la validación de los gastos del proyecto EAPA_0035/2022 – BluePoint, aprobado en el marco del programa Interreg Atlantic Area 2021-2027, en el cual la Diputación Foral de Gipuzkoa es socio líder y entidad beneficiaria.

Interreg Atlantic Area 2021-2027 programaren deialdiaren arabera, BluePoint proiekturako GFAren gastuak baliozkotzeko ardura Estatuko Administrazio Orokorrak izango du, zehazki Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (EFZN).

Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko onuradunen gastua baliozkotzeko ezarritako araudiaren eta erregulazioaren arabera, nahitaezkoa da justifikatutako gastuak aldez aurretik kontrolatzaile batek (edo lehen mailako kontrolatzaile batek, *First Level Controller, FLC*) egiaztatzea. Kontrolatzaile hori gastua baliozkotzeko ardura duen agintaritzak (EAO, EFZN) baimendutako auditore bat izango da, eta Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) inskribatuta egongo da, bai banaka, bai kide de auditoretza-erakunde bateko jarduneko bazkide gisa.

Kontratu honen xedea da beraz, auditorearekin zerbitzu-kontratua formalizatu beharra, aurreko paragrafoan aipatutako eskakizunak betetzeko eta, horrela, gastua baliozkotzea ardura duen agintaritzari lehen mailako kontrolatzailean proposamena egin ahal izateko; kontuan hartuta onarpen hori pertsonala dela, eta, beraz, baimena pertsona fisiko bati ematen zaiola, nahiz eta pertsona fisiko horrek enpresa baten kide edo ordezkari gisa sinatu.

Gastua baliozkotzeko ardura duen **agintaritzak esleipenduna onartzen ez badu**, **bertan behera geratuko da esleipena, eta baliorik gabe geratuko da.**

Hurrengo irudian laburbiltzen da BluePoint proiektuko ordainketa eskaera bakoitzerako aurrerapen txostenen zirkuitua. Bertan, kontratazio honen xede den kontrolatzailearen egiaztapena zein etapatan egiten den zehazten da:

De acuerdo a la convocatoria del Programa Interreg Atlantic Area 2021-2027 la Autoridad responsable de la validación de los gastos de la DFG en el marco del proyecto BluePoint será Administración General del Estado, a través de la Dirección General de Fondos Europeos (DGFE) del Ministerio de Hacienda y Función Pública.

De acuerdo a la regulación y normativa establecida para la validación del gasto de los beneficiarios dependientes de la Administración General del Estado, es requisito obligatorio que los gastos justificados sean previamente verificados por un controlador (o controlador de primer nivel, *First Level Controller, FLC*), que será una persona auditora autorizada por la Autoridad responsable de la validación del gasto (AGE, DGFE) y que esté inscrito en el Registro Oficial de Auditores/as de Cuentas (ROAC), bien individualmente o como socio ejerciente de una Entidad Auditora a la que pertenezca.

Por lo tanto, la necesidad de formalizar contrato de servicios con auditor/a es el objeto del presente contrato a fin de cubrir las exigencias reseñadas en el párrafo precedente y poder así realizar la oportuna propuesta de Controlador de Primer Nivel a la Autoridad responsable de la validación del gasto, teniendo en cuenta que dicha aprobación, tiene carácter personal por lo que la autorización lo es a una persona física, aunque ésta firme como miembro o en representación de una empresa.

En el caso de que él o la adjudicatario/a **no fuera aprobado/a por la Autoridad responsable** de la validación del gasto, **decaerá y quedará sin validez la adjudicación.**

Se resume en la figura siguiente el circuito de informes de progreso para cada solicitud de pago en el marco del proyecto BluePoint, donde se detalla en qué etapa se desarrolla la verificación del controlador objeto de la presente contratación:



3. LANEN DESKRIBAPENA

Kontrolatzaileak (edo Lehen Mailako Kontrolatzaileak) GFAren gastuak berrikusi eta ziurtatuko ditu BluePoint proiektuaren esparruan, eta bera arduratuko da 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 74.1 artikuluan eta 2021/1059 (EB) Erregelamenduaren 46. Artikuluko 3tik 9ra bitarteko ataletan ezarritako egiaztapenak egiteaz.

2021/1059 Erregelamenduaren 46. Artikuluaren arabera, GFAk egiten duen aurrerapen txosten bakoitza kontrolatzaile independente batek egiaztatu eta berretsi behar du. Kontrolatzaile horrek estatu kide bakoitzak ezarritako lehen mailako kontrol-sistema bete behar du, eta elektronikoki baimendu behar du SIGI plataforman (Interreg Atlantic Area programaren plataforma).

OHARRA: txosten eta gastu guztien kudeaketa SIGI 21-27 plataformaren bidez egin beharko da, eta, beraz, kontratuaren esleipendun den lehen mailako kontrolatzaileak plataforma horretarako sarbidea izan beharko du, GFAren gastuak kontrolatzeko/ikuskatzeko.

Kontratuaren esleipendun den kontrolatzaileak GFAk bere aurrerapen txostenean (*partner progress report*) aitortutako gastuak egiaztatu eta ziurtatuko ditu. Baliozkotzea eta azken txostenak zehaztu ondoren, kontrolatzaileak ereduzko ziurtagiriak bete, sinatu eta SIGI plataforman kargatu beharko ditu. Ereduzko txantiloi horiek Interreg Atlantic Area programaren webgunean gaude eskuragarri (www.atlanticarea.eu). Programaren ziurtagiriak betetzeaz gain, kontrolatzaileak Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren (EFZN) (hala badagokio, indarrean dagoen Agintaritza Nazionalarekin) egiaztatuko du nazioan eskatutako beste dokumentu batzuk dauden, eta horiek betetzeaz eta dagokion agintaritzari aurkezteaz arduratuko da.

Kontratuaren esleipendun den kontrolatzaileak egin beharreko egiaztapen-lanaren edukiak honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Entregatutako ondasunak eta zerbitzuak onartutako proiektuarekin bat datozela.
- Egindako eragiketa edo eragiketa-zatien kontzeptuan aitortutako gastuaren egiazkotasuna.
- Gastua eta eragiketak, edo lotutako eragiketen zatiak, batasuneko eta estatutako arauekin bat datozela.

3. DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS

El controlador (o controlador de primer nivel) revisará y certificará los gastos de la DFG en el marco del proyecto BluePoint, y será responsable de realizar las verificaciones establecidas en el artículo 74.1.a del Reglamento (UE) 2021/1060 y artículos 46 apartados 3 al 9 del Reglamento 2021/1059.

Según el artículo 46 del Reglamento 2021/1059, cada informe de progreso que realice la DFG debe ser verificado y confirmado por un controlador independiente que cumpla con el sistema de control de primer nivel establecido por cada Estado Miembro y debidamente autorizado electrónicamente en la plataforma SIGI (plataforma del programa Interreg Atlantic Area).

NOTA importante: la gestión de todos los informes y gastos se deberá realizar a través de la plataforma SIGI 21-27, de forma que el controlador de primer nivel que sea adjudicatario del contrato deberá tener acceso a dicha plataforma para el control/auditoría de gastos de la DFG.

El controlador que sea adjudicatario del contrato verificará y certificará los gastos declarados por la DFG en su informe de progreso del proyecto (*partner progress report*). Una vez determine la validación y los informes finales, el controlador deberá cumplimentar los certificados tipo, firmarlos y cargarlos en la plataforma SIGI. Estas plantillas tipo están disponibles en la página web del Programa Interreg Atlantic Area (www.atlanticarea.eu). Además de cumplimentar los certificados del programa, el controlador comprobará con la Dirección General de Fondos Europeos (DGFE) del Ministerio de Hacienda y Función Pública (en su caso, la Autoridad Nacional vigente) la existencia de otros documentos exigidos a nivel nacional, y se encargará de rellenarlos y presentarlos ante la autoridad correspondiente.

El contenido del trabajo de verificación a desarrollar por el controlador adjudicatario del contrato cubrirá los siguientes aspectos:

- La conformidad de bienes y servicios entregados con el proyecto aprobado.
- La veracidad del gasto declarado en concepto de operaciones o partes de operaciones realizadas.
- La conformidad del gasto y de las operaciones, o partes de operaciones conexas, con las normas comunitarias y nacionales.

3.1. ORDAINKETA ESKAERAK KUDEATZEKO EGIAZTAPENAK

Ordainketa eskaerak kudeatzeko egiaztapenek, egiaztapen administratiboan zein tokian tokiko egiaztapenak barne hartzen dituzte. Egiaztapen horiek kontrolatzaileak egingo ditu.

Interreg Atlantic Area 2021-2027 programaren esparruan finantzatutako proiektuen kontrolatzaileak egin behar duen kontrol-lana kontuak soilik kontrolatzeaz harago doa: EGEFen, estatuko eta programaren arauen eta Estatuko laguntzen erregulazioaren betetze-mailari buruzko iritzi bat ere badakar. Kontrolatzaileek, halaber, dagokion legedia eta programaren arauak ezagutu eta aplikatu behar dituzte. Horrekin bat etorriz, egiaztapenek ziurtatu beharko dute eragiketak bat datozen Batasunaren politikekin eta printzipio horizontalekin: desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna, estatu-laguntzak, kontratazio publikoa, garapen iraunkorra, diskriminaziorik eza, maila anitzeko elkarketa eta gobernantza (gardentasuna eta tratu-berdintasuna), gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, eta ingurumen arauak: kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSHP).

Jarraian, kontrolatzaileak BluePoint proiektuaren esparruan GFAren ordainketa eskaerei dagokienez egin beharko dituen bi egiaztapen motak deskribatzen dira.

3.1.1. EGIAZTAPEN ADMINISTRATIBOAK

Kontratuaren esleipenduna den kontrolatzaileak GFAk egiten dituen ordainketa eskaera guztien egiaztapen administratiboa egin beharko du finantza- eta administrazio-eremuetan, eta gastuen egiaztagirien %100 berrikusi beharko ditu. Honakoak egiaztatu beharko ditu:

- Gastua diruz laguntzeko aldiari dagokion eta ordaindu ote den;
- Gastua onartutako eragiketa bati ote dagokion;
- Programaren baldintzak betetzen ote diren, onartutako finantzaketaren ehunekoa barne, hala badagokio;
- Estatuko eta Batasuneko arauak diruz laguntzeari dagokionez betetzen ote diren;
- Egiaztagiriak nahikoak diren eta auditore-pista egokia ote dagoen;

3.1. VERIFICACIONES DE GESTIÓN DE SOLICITUDES DE PAGO

Las verificaciones de gestión de reclamaciones de pago incluyen tanto verificaciones administrativas como verificaciones sobre el terreno. Estas verificaciones serán llevadas a cabo por el controlador.

La tarea de control que debe llevar el controlador de los proyectos financiados en el marco del programa Interreg Atlantic Area 2021-2027 van más allá de controlar únicamente las cuentas: implica también un juicio sobre el cumplimiento de las regulaciones de los fondos FEDER, normas nacionales y del programa, y regulación de las ayudas estatales. Los controladores deben también conocer y aplicar la legislación pertinente y las normas del Programa. En consonancia con esto, las verificaciones deberán comprobar si las operaciones están alineadas con las políticas y los principios horizontales de la Unión: accesibilidad para las personas con discapacidad, ayudas estatales, contratación pública, desarrollo sostenible, no discriminación, asociación y gobernanza multinivel (transparencia e igualdad de trato), promoción de la igualdad entre hombres y mujeres, y normas medioambientales: Principio de no causar daños significativos (DNSHP).

Se describen a continuación los dos tipos de verificaciones que deberá llevar a cabo el controlador en lo que respecta a las solicitudes de reembolso de la DFG en el marco del proyecto BluePoint.

3.1.1. VERIFICACIONES ADMINISTRATIVAS

El controlador adjudicatario del contrato deberá realizar las verificaciones administrativas de todas las solicitudes de reembolso de la DFG en los ámbitos financiero y administrativo, así como la revisión del 100% de los justificantes de los gastos. Deberá comprobar:

- Si el gasto corresponde al período de elegibilidad y si se ha pagado;
- Si el gasto corresponde a una operación aprobada;
- Si se cumplen las condiciones del programa, incluido, si procede, el porcentaje de financiación aprobado;
- Si se cumplen las normas nacionales y de la Unión en materia de elegibilidad;
- Si los justificantes son suficientes y existe una pista de auditor/a adecuada;

- Kostu sinplifikatuen aukerak erabiltzen direnean, ordainketetarako baldintzak betetzen ote diren;
- Estatuko laguntzei, garapen iraunkorrari, aukera-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko arauak betetzen diren;
- Hala badagokio, kontratazio publikoaren arloko arau nazionalak eta Europar Batasunekoak betetzen ote diren;
- Publizitateari buruzko arau nazionalak eta Europar Batasunekoak errespetatzen ote diren;
- Programaren produktibitate-adierazle komun eta espezifikoen arabera neurtutako eragiketaren aurrerapen fisikoa, eta, hala badagokio, emaitzen eta mikrodatuen adierazleak;
- Ondasuna entregatzea edo zerbitzua ematea, laguntza indibidualari buruzko akordioaren baldintzekin bat etorriz.

3.1.2. TOKIAN TOKIKO EGIAZTAPENAK

Interreg Atlantic Area 2021-2027 programak ezartzen duenez, gutxienez behin proiektuaren bizi-zikloan zehar, onuradun bakoitzak tokian bertan egiaztapen bat egin behar duela, amaierako txostena aurkeztu baino lehen.

GFAren kasuan, ekintza pilotu batekin lotutako ekipamenduetan inbertsiorik edo/eta azpiegitura- eta lan-kosturik ez dagoenez, tokian bertan egin beharreko egiaztapena hori modu telematikoan (online) egiteko aukera dago.

3.2. KONTROLATZAILEAK BERRIKUSI BEHARREKO GASTUAK

Honekin batera doan "*Methodology for risk-based management verifications in 2021/2027*" dokumentuan ezarritakoa kontuan hartuta, eskatutako gastu batzuk kontrolatzaileak osotasunean egiaztatu beharko ditu, eta beste kasu batzuetan kontrolatzaileek lagin bat aukeratu ahal izango dute.

GFAren kasuan, BluePoint proiektuaren onuradun gisa, kontrolatzaileak honako ordainketa eskaerak barne hartu beharko ditu bere egiaztapen administratiboetan:

- GFAren lehen ordainketa eskaera, proiektuari edo/eta GFAri, onuradun bezala, lotutako arrisku potentzialak ebaluatu ahal izateko.

- Cuando se empleen opciones de costes simplificados, si se han cumplido las condiciones para los pagos;
- Si se cumplen las normas en materia de ayudas estatales, desarrollo sostenible, igualdad de oportunidades y no discriminación;
- Si procede, si se cumplen las normas nacionales y de la Unión en materia de contratación pública;
- Si se respetan las normas nacionales y de la Unión sobre publicidad;
- El avance físico de la operación medido con arreglo a los indicadores de productividad comunes y específicos del programa y, si procede, los indicadores de resultados y microdatos;
- La entrega del bien o la prestación del servicio de forma plenamente conforme con las condiciones del acuerdo de ayuda individual.

3.1.2. VERIFICACIONES SOBRE EL TERRENO

El programa Interreg Atlantic Area 2021-2027 establece que al menos una vez durante el ciclo de vida del proyecto debe realizarse una verificación sobre el terreno por parte de cada uno de los beneficiarios antes de presentar su informe final.

En el caso de la DFG; al no tener previstas inversiones en equipamientos y/o costes de infraestructura y trabajo relacionados con una acción piloto, existe la posibilidad de que esta verificación sobre el terreno pueda hacerse de manera telemática (online).

3.2. GASTOS A REVISAR POR EL CONTROLADOR

Considerando lo establecido por el documento que se adjunta "*Methodology for risk-based management verifications in 2021/2027*", algunos gastos solicitados deberán ser verificados en su totalidad por el controlador, y en otros casos los controladores podrán optar por seleccionar una muestra.

En el caso de la DFG como beneficiario del proyecto BluePoint, el controlador deberá incluir en cuenta en sus verificaciones administrativas las solicitudes de pago que se enumeran a continuación:

- Primera solicitud de pago de la DFG, de modo que sea posible evaluar los riesgos potenciales asociados al proyecto y/o a la DFG como beneficiario.

- Langileen kostu erreal guztiak (GFAk proiektu honetan langileen kostu erreala hautatu du) ordainketa eskaera guztietan.
- Estatuko edo EBko legediaren arabera kontratazio publikoari loturako gastu guztiak, ordainketa eskaera guztietan.
- Hautaketa-fasean arrisku potentzialak identifikatu zitzaizkien proiektuen ordainketa esakerak.
- Onuradunarentzat onartutako aurrekontuaren %50 edo gehiagoari dagokion edozein ordainketa eskaera.
- GFAren amaierako ordainketa eskaera bere osotasunean; izan ere, akatsen bat izanez gero, ez da erraza izango bidegabeko edozein ordainketa berreskuratzea.

Egiaztatutako partida batean irregulartasunak hautematen badira, kontrolatzaileak kontrola zabaldu beharko du ordainketa eskaerak barne hartzen dituen gastu guztietara.

Baldintza hauek bete ondoren, kontratuaren xede den kontrolatzaileak lagin bat aukeratu ahal izango du, betiere honako hau kontuan hartuta:

- Ordainketa eskaerak 30 gastu-dokumentu baino gehiago baditu bakarrik har daiteke laginketa bidezko egiaztapena egiteko aukera. Horrela, 30 gastu-dokumentu arte dituzten ordainketa eskaeren kasuan, 2021-2027ko arriskuan oinarritutako kudeaketa egiaztapenak erabat betetzen dituzten azterketa egin beharko da.
- Laginak ausazkoa izan behar du, eta gutxienez 30 dokumentu eta aitortutako gastuen gutxieneko bolumen bat izan behar ditu, eta horien ehunekoa adierazgarria izan behar da.
- Akats sistematikoak hautematen direnean, laginaren tamaina handitu egingo da, errorea identifikatzeko eta eragin globala kuantifikatzeko.

Materialki garrantzitsuak diren ausazko erroreak identifikatzen direnean (≥ %2), Agintaritza Nazionalak erabaki ahal izango du ordainketa eskaeran sartutako gastu guztiak egiaztatzea, lagina zabaltzea EBk laginketari buruz emandako orientabideei jarraituz edo errorea hautatu gabeko gastuetara proiektatzea (populazioa).

Kontrolatzaileak, esperientzian eta ikasgaietan oinarrituta, pentsa dezake gastu-partida jakin batzuek berezko arrisku handiagoa dutela, ezohikoak direla edo iruzur-susmoak eragiten dituztela. Kasu horietan, gastuak aurreko

- Todos los gastos en costes reales de personal (la DFG ha optado por costes reales de personal en este proyecto) en todas las solicitudes de pago.
- Todos los gastos sujetos a contratación pública de acuerdo con la legislación nacional y de la UE, en todas las solicitudes de pago.
- Solicitudes de pago de proyectos para los que se identificaron riesgos potenciales durante la fase de selección;
- Cualquier solicitud de pago que corresponda al 50% o más del presupuesto aprobado para la DFG
- Solicitud de pago final de la DFG en su totalidad, ya que, en caso de errores, no será fácil recuperar cualquier pago indebido.

En el caso de que se detecten irregularidades en una partida verificada, el controlador deberá ampliar el control a todos los gastos cubiertos por la solicitud de pago en cuestión.

Tras dar cabida a los requisitos enumerados anteriormente, el controlador objeto del contrato podrá optar por seleccionar una muestra, tendiendo siempre en cuenta lo siguiente:

- La opción de verificación por muestreo sólo puede tomarse si la solicitud de pago contiene más de 30 documentos de gasto. Así pues, en el caso de las solicitudes de pago que contengan hasta 30 documentos de gastos, deberán someterse a un análisis que cumplan plenamente las verificaciones de gestión basadas en el riesgo en 2021-2027.
- La muestra debe ser aleatoria y tener un mínimo de 30 documentos y un volumen mínimo de gastos declarados cuyo porcentaje debe ser representativo.
- Cuando se detecten errores sistemáticos, se aumentará el tamaño de la muestra para identificar el error y cuantificar su impacto global.

Cuando se identifiquen errores aleatorios materialmente relevantes (≥ 2%), la Autoridad Nacional podrá optar por comprobar todos los gastos incluidos en la solicitud de pago, ampliar la muestra siguiendo las orientaciones de la UE sobre muestreo o proyectar el error a los gastos no seleccionados (población).

El controlador, basándose en la experiencia y las lecciones aprendidas, puede considerar que determinadas partidas de gastos tienen un riesgo intrínseco mayor, son inusuales o dan lugar a sospechas de fraude. En estos casos, aunque los

zerrendan agertzen ez badira ere, %100ean egiaztatu beharko dira.

3.3 GASTUAK EGIAZTATZEKO LANEN BALDINTZAK

- Programa Operatiboaren informazio eta kontrol-eredu estandarizatuak erabiltzea gastua jakinarazteko, kontrolak dokumentatzeko eta diruz lagun daitezkeen gastuak berresteko.
- Egiaztapenaren komunikazioa gastuak egiaztatzeko txostenarekin osatzea, Agintaritza Nazionalak hartutako ereduaren arabera eta 125. artikuluko betekizunen zerrendaren Eranskinaren arabera, baldin eta programak erabilitako ereduak Agintaritza Nazionalak aurreikusitako alderdi guztiak jasotzen ez baditu.
- Programan ezarritako epea kontuan hartuta, kontrol-lana gehienez 30 egun naturaleko epean egingo dela ziurtatzea.
- Programak antolatutako kontrol-mintegietara joateko prest egotea.

4. EPEAK

Zerbitzua gauzatzeko epea kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik, 2026ko irailerako aurreikusita dagoen gastuen azken ziurtagiria aurkeztu artekoa izango da,

Kontratu honen esleipenduna den kontrolatzaileak GFAk ordainketa eskaera egiten duen bazkidearen aurrerapen txostenetan (Partner Progress Report) justifikatutako kostuak egiaztatuko beharko ditu.

GFAk 6 hilean behin bazkidearen aurrerapen txosten bat egin beharko badu ere, aurreikusten da proiektuan zehar GFAk urtean behin egingu duela ordainketa eskera (urtean egin beharreko bi aurrerapen txostenetako batean).

Hala, kontrolatzaileak BluePoint proiektuan zehar GFAk egindako 3 ordainketa-eskaera egiaztatu beharko dituela aurreikusten da.

Jarraian, BluePoint proiektuan kudeaketa agintaritzan aurkezteko geratzen diren aurrerapen txostenen (kontrolatzaileek egiaztatutako bazkideen aurrerapen txostenek osatzen dutena)egutegia azaltzen da.

Lanen Zuzendaritzak egutegi bat adostuko du kontratuaren esleipendunarekin, ordainketen

gastos no figuren en la lista anterior, deben verificarse al 100%.

3.3 CONDICIONES DE TRABAJO DE VERIFICACIÓN DE GASTOS

- Utilizar los modelos estandarizados de información y control del Programa Operativo para comunicar el gasto, para documentar los controles y para confirmar los gastos subvencionables.
- Completar la comunicación de la verificación con el Informe de verificación de gastos, según modelo adoptado por la Autoridad Nacional y Adenda al Listado de los requisitos del artículo 125, en el caso de que el modelo utilizado por el Programa no recogieses todos los extremos previsto por la Autoridad Nacional.
- Teniendo presente el plazo establecido en el Programa, asegurar que el trabajo de control se llevará a cabo en un plazo máximo de 30 días naturales.
- Estar dispuesto a asistir a los seminarios de control organizados por el Programa.

4. PLAZOS

El plazo de ejecución del servicio estará comprendido entre el día siguiente a la formalización del contrato y la presentación de la certificación final de gastos prevista para septiembre del 2026.

El controlador adjudicatario del presente contrato deberá verificar los costes justificados por la DFG en los correspondientes informes de progreso de socio (Partner Progress Report) en los que se realicen solicitudes de pago.

Si bien la DFG deberá elaborar un informe de progreso de socio cada 6 meses, se prevé que en el marco del proyecto la DFG realice la solicitud de pago de forma anual (en uno de los dos informes de progreso que se debe elaborar al año).

Con ello, se prevé que el controlador deba verificar en total 2 solicitudes de pago por parte de la DFG durante el ciclo de vida del proyecto BluePoint.

Se adjunta a continuación el calendario de los informes de progreso (que integran los informes de progreso de los socios verificados por el controlador) que quedan por presentar ante la autoridad de gestión durante el ciclo de vida del proyecto BluePoint.

La Dirección de los Trabajos acordará un calendario con el adjudicatario del contrato para

eskaerak zein txosten-alditan egingo diren zehazteko eta, horrekin batera, esleipendunak egiaztapenak egiteko egutegi bat zehaztuko du.

determinar los periodos de informes en los que se realizará una solicitud de pago, y con ello el adjudicatario definirá un calendario de verificaciones.

3. aurrerapen txostena /informe progreso	2025eko apirila / abril 2025
4. aurrerapen txostena /informe progreso	2025eko urria / octubre 2025
5. aurrerapen txostena /informe progreso	2026ko apirila / abril 2026
Proiektuaren amaierako txostena Informe final del proyecto	3 hilabete proiektuaren bukaera-datatik 3 meses desde, la fecha de finalización del proyecto

5. ARAU-TESTUINGURUA

Kontratuaren esleipendun den kontrolatzaileak honako dokumentu hauen edukia ezagutu beharko du EBko erregelamendu eta zuzentarauetan ezarritako xedapenak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, bereziki honako hauek:

- 2021/1060 (EB) Erregelamendua (Xedapen komunei buruzko Erregelamendua)
- 2021/1058 (EB) Erregelamendua (EGEF Erregelamendua)
  2021/1059 (EB) Erregelamendua (Europako lurralde-lankidetzari buruzko erregelamendua)
- Kontratazio publikoari buruzko EBren zuzentarauak;
- Estatuko laguntzei buruzko EBren zuzentarauak
- Arau eta orientabide nazional gehigarriak (adibidez, kontratazio publikoko arau nazionalak)
- Interreg Atlantic Area 2021-2027 programaren eskuliburua
- 2021-2027an, arriskuetan oinarritutako kudeaketa egiaztatzeko metodologia
- Proiektua Onartzeko Formularioa (SIGI plataforman eskuragarri);
- Dirulaguntza kontratua (sinatu ondoren, SIGIn kargatuko da).
- Elkartzeko akordioa (sinatu ondoren SIGIn kargatuko da).

5. CONTEXTO NORMATIVO

El controlador que sea adjudicatario del contrato tendrá que estar familiarizado con el contenido de los siguientes documentos para poder confirmar el cumplimiento de las disposiciones establecidas en los reglamentos y directivas de la UE, en particular con:

- Reglamento (UE) n.º 2021/1060 (Reglamento sobre disposiciones comunes)
- Reglamento (UE) n.º 2021/1058 (Reglamento FEDER)
- Reglamento (UE) n.º 2021/1059 (Reglamento de cooperación territorial europea)
- Directivas de la UE sobre contratación pública;
- Directivas de la UE sobre ayudas estatales
- Normas y orientaciones nacionales adicionales (por ejemplo, normas nacionales de contratación pública)
- Manual del programa Interreg Atlantic Area 2021-2027
- La metodología para las verificaciones de la gestión basada en riesgos en 2021-2027
- Formulario de Aprobado de Proyecto (disponible en la plataforma SIGI);
- Contrato de Subvención (que se cargará en SIGI después de las firmas);
- Acuerdo de Asociación (que se cargará en SIGI después de las firmas).

6. LANEKO HIZKUNTZA

Kontratatuaren esleipendun den kontratatzaileak egin beharreko egiaztapen lanen esparruan, laneko hizkuntza ingelesa izango da (Interreg Atlantic Area programako dokumentu guztiak, SIGI plataforma eta kontrolatzaileak bete beharreko ereduak ingelesez daude eskuragarri).

6. IDIOMA DE TRABAJO

El idioma de trabajo en el marco de las tareas de verificación a realizar por el controlador adjudicatario del contrato será el inglés (todos los documentos del programa Interreg Atlantic Area, la plataforma SIGI y los modelos a cumplimentar por el controlador están disponibles el inglés).

Euskara eta gaztelania erabili ahal izango dira Lanen Zuzendaritzarekin (GFA) soilik lantzen diren barne-komunikazio eta -dokumentuetan.

7. GAITASUN TEKNIKO-PROFESIONALA

Lehen Mailako Kontrolatzaile Auditorearen izendapena pertsonala izango da beti, eta, beraz, ROACen inskribatutako AUDITORE pertsona fisikoa adierazi beharko da beti, kontrola egiteko ardura izango duena – eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu-, eta ezingo da beste batekin ordezkatu, nahiz eta enpresa edo erakunde auditore batekoa izan.

Gaitasun tekniko-profesionala egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) inskribatuta egotearen egiaztagiria: Elkargo Ofizialak edo erakunde eskudunak emandako egiaztagiri edo ziurtagirien bidez egiaztatuko da, edo, bestela, legez horiek ordezten dituen dokumentazio fede-emailearen bidez.

8. LANEN ZUZENDARITZA TEKNIKOA

Lanen zuzendaritza teknikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzako langile teknikoek hartuko dute bere gain. Lanaren zuzendaritza teknikoaren eginkizunak izango dira:

a) Lanak gauzatzeko behar diren bitartekoak eta antolaketa eskatzea.

b) Preskripzio Teknikoen Agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako gainerako baldintzak interpretatzea.

c) Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzak lanaren xede diren gaiei buruz defini ditzakeen irizpideak txertatzeko eskatzea.

d) Lanean egitea komeni diren aldaketak programatzea. Horretarako, Zuzendaritza Teknikoak berariazko ahalmena du lan-programa aldatzeko, egiten ari dena edo egin beharrekoa, kasu bakoitzaren inguruabar berezien eta lortzen ari diren emaitzen arabera, betiere bukaerako aurrekontua aldatzen ez bada.

Se podrá utilizar el euskera y castellano en las comunicaciones y documentos internos que se trabajen únicamente con la Dirección de los Trabajos (DFG).

7. CAPACIDAD TÉCNICO-PROFESIONAL

La designación del Auditor/a Controlador de Primer Nivel será en todo caso personal, por lo que deberá indicarse en todo caso la persona física AUDITOR/A inscrito en el ROAC, que será responsable de realizar el control -la cual deberá reunir la totalidad de requisitos exigidos- no pudiendo ser sustituida por otra aun cuando pertenezca a una empresa o Entidad Auditor/a.

La solvencia técnico-profesional habrá de acreditarse aportando los siguientes documentos:

- Acreditación de estar inscrito en el Registro Oficial de Auditor/aes de Cuentas (ROAC): Se acreditará mediante los certificados o documentación acreditativa emitida por el Colegio Oficial u Organismo competente o bien aquella documentación fehaciente que legalmente los sustituya.

8. DIRECCIÓN TÉCNICA DEL TRABAJO

La dirección técnica del trabajo será asumida por el personal técnico designado de la Dirección de Transición Ecológica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Serán funciones de la dirección técnica del trabajo:

a) Exigir la existencia de los medios y organización necesarios para la ejecución del trabajo.

b) Interpretar el Pliego de Condiciones Técnicas y demás condiciones establecidas en el contrato o en disposiciones oficiales.

c) Exigir la incorporación de los criterios que la Dirección de Transición Ecológica pueda ir definiendo sobre las materias objeto del trabajo.

d) Programar las modificaciones que convenga introducir en el trabajo, para lo cual la Dirección Técnica está expresamente facultada para variar el programa de trabajo, en realización o por realizar, de acuerdo con las circunstancias especiales de cada caso y los resultados que se vayan obteniendo, siempre que no varíe el presupuesto final.

e) Esleipendunak aurkeztutako dokumentazio partziala eta amaierakoa aztertzea, eta egokitzat jotzen dituen zuzenketak eta aldaketak egitea, behin betiko jaso aurretik

f) Lanak gauzatzean sortzen diren gorabehera guztiak izapidetzea.

e) Examinar la documentación parcial y final aportada por el adjudicatario, pudiendo señalar las correcciones y modificaciones que considere oportunas antes de su recepción definitiva.

f) Tramitar cuantas incidencias surjan en la ejecución del trabajo.